



Lehenengo zenbakia urriaren 6an aurkeztu zuten.

## ‘Geuria’ hilabetekaria eta webgunea abian dira Hego Uriben

AZKEN URTEOTAN, euskarazko prentsa egiteko saiakera bat baino gehiago izan dira Bizkaiko Hego Uribe eskualdean, baina denek egin dute porrot lehenago edo geroago. Geuria proiektua Basauriko Euskara Aholku Batzordetik sortu da eta Udalak diruz babestu du.

Basaurin, Galdakaon, Arrigorriagan, Etxebarrian eta Zaratomon hilabetekariaren 10.000 ale banatuko dira. Gune publikoetan egongo da *Geuria* eta etxean jaso ahal izateko eskaera egin behar da.

Bi langile izango ditu egitasmoak (Jon Villapún izango da zuzendaria) eta horrez gain, kolaboratzaileak eta bizilagunak ezinbestekoak izango dira. Esate baterako, hilerro erredakzio bilera irekiak antolatuko dituzte herrietako eta auzoetako bizilagunek aldizkarian eta webgunean landu nahiko lituzketen gaiak proposatzeko.

Basaurin euskarazko azken aldizkaria 2012ko urtarrilean desagertu zen. *Berba* hedabidea 2010eko urrian abiatu zuen Sustraiak Fundazioak, bizkaieraz.

## Eusko Jaurlaritzak B eredia sortuko du Lanbide Heziketan

DERRIGORREZKO Bigarren Hezikuntzan, A, B eta D ereduak daude, eta D eredia da nagusi. Lanbide Heziketara jauzi egindakoan ordea, D eredia baino A eredia jotzen dute ikasleek. Horixe Patxi Baztarrিকা Hizkuntza Politikarako sailburuordeak B eredia sortzeko emandako argudioetako bat, helburua euskarazko irakaskuntza sustatzea baita.

2013-2014 ikasturtean, DBHn, ikasleen %61,3k ikasi zuen D eredian, %26,75ek B eredian eta %11,3k A eredian. Ikasturte berean, Lanbide Heziketako datuak ondokoak dira: A eredian %75 eta D eredian %23,4. Hasi berria den ikasturtean, ikasleen %27k aukeratu du D eredia; iazkoarekin alderatuta hazkundea %12,5ekoa da.

Eusko Jaurlaritzak legealdi honetan Euskadiko Lanbide Heziketako Legea aurkeztuko du eta hor kokatuko du B ereduaren sorrera.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### “Estatu kolpea” Kutxabanken?

KUTXABANKEN egiazko “estatu kolpe” baten atarian gaude, Espainiako Gobernuak martxan jarri eta EAJk, PSEk eta PPk babestutako dinamika politikoa gelditzen ez badugu behintzat. Abenduaren 31rako konponduta behar du. Eta presa handia dago hurrengo hauteskundeon ondorioz aldatu daitezkeen indar orekak blindatzeko. Martxan dago aurrezki kutxak banku fundazio bihurtzeko prozesua. Hala, Kutxabanken gaineko kontrola galduko litzateke, akziodun pribatuak sartuko direlako. Hau da, euskal finantza sistemaren ardatza den egungo Kutxabank, pribatua izatera igaroko litzateke. Bere ondarea 100 urtetan zehar osatu da euskal herritarren aurrezkiekin. Ondare hori garapen ekonomiko, industrial eta sozialerako bideratu liteke, baita gizarte ekintzarako ere. Pribatizatuz gero, akzionista eta inbertitzaile pribatuetara pasako litzateke. Egiazko “estatu kolpea”: kontrol publiko eta soziala duen entitate izatetik, kapital pribatuaren interesetara dagoen sozietate izatera.

Euskal jendartearen badaude alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialak bide horren kontrako jarrera azaldu dutenak. Zenbaitek alternatiba ere proposatu dute Kutxabankek erakunde publiko eta demokratiko gisa jardun dezan. Ildo horretan, batzuk lanean ari dira pribatizatzeke helburu hori eragotziko lukeen marea sozial bat sortzeko. Kutxabank Publikoa plataforma herri guztietan ari da hitzaldi, eztabaida eta mobilizazioen bidez marea hori sustatzen. Herritarren aurrezkiak ez galtzea da lehentasuna, gizarte ongintza bermatzea eta finantza erakundeari etorkizun ekonomiko eta demokratiko bat ematea. Horretarako, aurrezki kutxa tradizionalen oinordeko den Kutxabankek kontrol publiko eta soziala eduki behar du, Euskal Herriaren zerbitzura egon. Eta ez inbertitzaileen interes pribatuaren menpe.

Juan Mari Arregi

